

2023KO EUSKADIKO INGURUMEN PROFILA: OSASUNA ETA INGURUMENA

Posted on 13/06/2024 by Naider

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak [2023ko Euskadiko Ingurumen Profila](#) argitaratu du. NAIDERetik IHOBerekin lan egiteko ohorea izan genuen Profilaren prestaketan. Urtero egiten diren profilen sekuentziari jarraituz, ingurumen-profila [ingurumenaren, osasunaren eta ongizatearen arteko harreman estuan](#) oinarritu zen, ingurumen-osasunaren garrantzian sakonduz.

Ingurumen-profila Euskadiko ingurumenaren egoera orokorra aldizka ebaluatzen duen tresna da, adierazle nagusien bilakaera erakusten duten goiburuko ingurumen-adierazleen txosten baten bidez. Horren barruan, adierazle batzuk identifikatu eta kalkulatu ziren, Euskadik gaur egun duen ingurumen-osasuna definitzeko eta euskal gizarteak dituen erronkak eta perspektibak aztertzeko.



[PDF eskuragarri](#)

